


# Bergarako gerriko berdearen bira

# Ruta del anillo verde de Bergara

SL

GI-38



Arg: Juanjo López

Maparen eskala 1/5000
Ortoargazkiaren eskala 1/8000

**2011ko abendua**
*Diciembre de 2011*

Bergarako Udala

---

SL

GI-38

## Gerriko berdearen bira

EDUKIA
Ibilbidearen Mapa (1: 5000 eskala)
Ortoargazkia 1: 8000 eskala (2009. urtea)

DISEINU ETA ARGITALPEN KARTOGRAFIKOA
Geograma S.L.
Tel: 943 05 03 50 – 902 99 55 84
www.geograma.com

ESKER ONAK
Bergarako Udalak eskerrak ematen dizkie mapa hau egiten parte hartu duten departamendu eta pertsona guztiei

INFORMAZIO ITURRIAK
Bergarako Udala

KARTOGRAFIA:
Gipuzkoako Foru Aldundia. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

ORTOARGAZKIA:
Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

BIDEA:
Gipuzkoako Mendizale Federazioak 2011 urtean homologatu du SL-GI-38, Gerriko Berdearen Bira

OKERREN ZUZENKETA ETA IRADOKIZUNAK:
Bergarako Udala. San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943.77.91.00
Helbide elektronikoa: bergara@bergara.net

## Ruta del anillo verde

CONTENIDO
Mapa del recorrido (1: 5000 escala)
Ortofoto escala 1: 8000 (año 2009)

DISEÑO Y EDICIÓN CARTOGRÁFICA
Geograma S.L.
Tel: 943 05 03 50 – 902 99 55 84
www.geograma.com

AGRADECIMIENTOS
El Ayuntamiento de Bergara quiere dar las gracias a todas aquellas personas y departamentos que han tomado parte en la realización de este mapa

FUENTES DE INFORMACIÓN
Ayuntamiento de Bergara

CARTOGRAFÍA:
Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

ORTOFOTO:
Gobierno Vasco. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

RUTA:
La Federación Guipuzcoana de Montaña ha homologado en 2011 el sendero SL-GI-38, Ruta del anillo verde

CORRECCIÓN DE ERRORES Y SUGERENCIAS:
Ayuntamiento de Bergara. San Martín Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943.77.91.00
E-mail: bergara@bergara.net

## TELEFONO INTERESGARRIAK / TELÉFONOS DE INTERES

| | |
|---|---|
| SOS deiak / Emergencias | 112 |
| Udaltzaingoa / Policía Municipal | 943 77 91 06 |
| Ertzantza | 943 53 47 20 |
| Taxi geltokia / Parada de Taxis | 943 76 19 50 |
| PESA autobusak hiriartekoak (Lurraldebus) | 902 10 12 10 |
| Líneas de autobuses PESA (Lurraldebus) | www.pesa.net |
| Turismo bulegoa / Oficina de turismo | 943 77 91 28<br>www. bergara.net<br>turismoa@bergara.net |
| Agorrosin Ekintza Gunea / Zona de Actividades de Agorrosin | 943 77 70 95<br>www.agorrosin.net |
| Pol-Pol Mendizale Elkartea | 943 76 48 51<br>http://pol-pol.net |
| Lokatza Ziklismo Eskola | www.lokatza.com |

## OSTATUAK / ALOJAMIENTOS

| | | |
|---|---|---|
| Anduri Landetxe<br>Casa rural Anduri | Ubera auzoa, 13<br>www.nekatur.net<br>andurilandetxea@yahoo.es | 943 77 70 50 |
| Arizpea Hotela *<br>Hotel Arizpea * | Telesforo Aranzadi, 3<br>arizpeahotela@euskalnet.net | 943 76 18 46 |
| Lamaino-Etxeberri Nekazal tur.<br>Agroturismo Lamaino-Etxeberri | San Martzial auzoa/Goiko auzo<br>www.nekatur.net<br>maileans7@gmail.com | 943 76 35 06 |
| Ormazabal Hotela **<br>Hotel Ormazabal ** | Barrenkale, 11<br>www.grafitsweb.com/hotelormazabal<br>ormazabalreservas@infonegocio.com | 943 76 36 50 |

Bergarako Udala

gmf Gipuzkoako Mendizale Federazioa

L.G. D.L.: VI-748 / 2011




## IBILBIDEA

Gerriko Berdearen ibilbide honek Bergarako hirigunea inguratzen du, aisialdirako espazioak lotuz eta natura kontserbatzeko eremuak zeharkatuz. Ibilbidearen abiapuntu bezala Agorrosingo ekintza gunea proposatzen dugu, baina bira honek hainbat sarbide eta irtenbide ditu.

Boni Laskurain ibilbidea egin ondoren, Goiauzorantz abiatzen da bidea, San Martzial ermitaraino. Zatirik aldapatsuena da hau. Bidean aipagarriak dira Askatsuko iturria eta bere inguruetan kontserbatzen den hariztia. San Martzial baselizaren inguruan atseden lekua eta natura zein lekuko tradizioak ezagutzeko baliabideak aurkituko ditugu. Aurrera eginez, baserrien artean, ibilbideak Surragako gurutzera eramango gaitu, ikuspegi panoramiko bikaina eskaintzen digun lekua hau. Jaitsieran, gure bidetik 200 metrora dagoen Agirreko garaia ikusi ostean, Gabiria dorrera joan eta San Antonio auzora iritsiko gara.

San Antoniotik "Ferrocarriles Vascongados" trenbideak utzitako bidera igoko gara, ibilbidearen bigarren zatiari ekiteko. Bide eroso eta laua da, eskualdeko paisaien eta herriko kasko historikoaren ikuspegi ederrak gozatzeko aukera ematen duena. Aipagarria da baita ere Ugasarri ingurutik kaleraino iristen den basoa. Trenaren geltokia egondako lekura iristean, Moiua jauregirantz jaitsi eta herrira sartuko gara, ibilbidea Agorrosinen amaitzeko.

Agorrosin ekintza guneak taberna-jatetxea, igerilekua eta bainu-etxea eskaintzen dizkigu, gure aisialdi eguna borobiltzeko. Arkitekturaren ikuspegitik aipagarriak dira altzairuz egindako igeri-ontzi aitzindariak eta ingurumen ikuspegitik gunearen kudeaketa eredugarria.

## RECORRIDO

Este sendero del cinturón verde de Bergara rodea el casco urbano a través de zonas de recreo y pequeños pero valiosos espacios naturales. Como inicio y fin del recorrido, se propone la zona deportiva de Agorrosin, si bien la ruta cuenta con varios accesos y salidas alternativas.

Una vez atravesado el paseo Boni Laskurain, el camino se dirige hacia el barrio de Goiauzoa, hasta la ermita de San Martzial. Es el tramo con mayor pendiente. En el camino destacan la fuente de Askatsu y el robledal que conserva en su entorno. Junto a la ermita de San Martzial encontraremos una zona recreativa, así como paneles para conocer la naturaleza y las tradiciones del lugar. Más adelante, entre caseríos, el sendero nos conducirá a la cruz de Surraga, que nos ofrece unas vistas panorámicas magníficas. En el descenso, a 200 metros de nuestro camino se encuentra el hórreo de Agirre; tras admirarlo, nos dirigiremos a la torre de Gabiria y llegaremos al barrio de San Antonio.

Desde San Antonio iniciaremos la segunda parte del recorrido. Para ello, subiremos hasta la antigua vía del tren o de los "Ferrocarriles Vascongados". El camino es cómodo y llano, permite disfrutar del paisaje y ofrece hermosas vistas sobre el casco histórico de la villa. Destaca también el bosquete de Errekalde, que llega hasta el núcleo urbano de la villa. Al llegar a lo que fue la estación del ferrocarril, descenderemos hacia el palacio de Moiua y entraremos de nuevo en la población para finalizar nuestro recorrido en Agorrosin.

Allí, el Centro de Actividades de Agorrosin nos ofrece su bar-restaurante, piscina y balneario donde poner la guinda a nuestra jornada de ocio. Este centro destaca en el aspecto arquitectónico por los innovadores vasos de piscina fabricados en acero; y en el medioambiental, por la adopción de avanzados principios de sostenibilidad en la gestión del mismo.



Arg: Iñaki Irizar

## PROFILA - PERFIL




| ZABALERAK / ANCHOS | |
|---|---|
| (línea amarilla continua) | + 1,8 m. |
| (línea de puntos) | - 0,9 m. |

| LURZORUAK / SUELOS |
|---|
| Asfaltua edo antzerakoak / Asfalto o similares |
| Lur trinkoa edo hartxintxarra / Tierra compacta, grava o gravilla |
| Higadura handiko lurrazala / Superficies muy erosionadas |

## MIDE

| Ingurumena / Medio | Ibilbidea / Itinerario | Desplazamenduak / Desplazamiento | Esfortzua / Esfuerzo | MIDE denbora / Tiempo MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 1 | 1 | 1 | 1h 44min |
| Ingurumena arriskutsua gerta daiteke / El medio no está exento de riesgos | Bide eta bidegurutzeak ondo zehaztuak daude / Caminos y cruces bien definidos | Zoru lauetan barreneko ibilaldia / Marcha por superficie lisa | Ordu 1etik 3ra bitarteko ibilbidea gelditu gabe / De 1 a 3h de marcha efectiva | |



HASIERA / AMAIERA
INICIO / FINAL
AGORROSINGO EKINTZA GUNEA
ZONA DE ACTIVIDADES DE AGORROSIN
Askatsuko hariztia
Robledal de Askatsu
San Martzial
Askatsuko iturria
Fuente de Askatsu
Goiauzoa
Surragagaña
SL-GI-38
Surragako gurutzea
Cruz de Surraga
Gabiriako dorrea
Torre de Gabiria
Moiutorrea
Torre de Moiua
Agirreko garaia
Hórreo de Agirre
Ozaetako jauregia
Palacio de Ozaeta
Agirre
Azkarruntz
Kurutzeaga
Gindaoa
Soldauko to
Usondo parkea
Arrizuriaga parkea
Deba
AP-1
GI-627
GI-632
GI-3360
ESKALA 1:5.000
Metros / Metroak
HIPSOMETRIA
100m 170m 240m 310m 380m 450m
Sestra kurben distantziakidetasuna
Equidistancia curvas de nivel 5m
Erreferentzia - Sistema ETRS89. UTM proiekzioa. 30 ziria, Iparraldea
Sistema de referencia ETRS89. Proyección UTM. Huso 30 Norte
Diseinua / Diseño: Geograma S.L.
IKUR KON

## GOIAUZOA ETA SAN MARTZIAL

Goiauzoak landa eremuko paisaia eta jarduera mantentzen ditu oraindik, hirigunetik gertu. Hemen dago San Martzial baseliza. XVI. mendekoak dira "San Martzial mendia" eta bertan zegoen ermita aipatzen dituzten lehen dokumentuak, baina lehenagokoa da seguruen inguru hau errituetarako erabiltzeko ohitura. Leku garrantzitsua da bergararrentzat. Jai eremu izaerak, baselizak, leizeak eta iturri sendagarriak berezia egin dute. Goiauzoko baserritarrak ermitaren inguruan elkartzen ziren auzoko arazoak eztabaidatzeko eta auzolanak antolatzeko. Antzinako iturriaren urak azaleko gaitzak osatzeko fama zuen eta jende asko erakartzen zuen hona, erremedio bila. Iturri hura ez da erabiltzen gaur egun, 1960 inguruan galdu zen ohitura. Geroztik, sasi artean dago, ezkutuan.

San Martzial atseden-leku erosoa da gaur egun, eta natura berreskuratzeko eta kontserbatzeko eremua ere bai. Aisialdirako prestatua (iturria, mahaiak, umeendako jolaslekua), ingurumena interpretatzeko ekipamendua ere badu (biodibertsitateari, historiari eta ohiturei buruzko panelak). Urtero, erromeria jendetsua ospatzen dugu bergararrok hemen.

Inguru honetan aipagarriak dira garai bateko gaztainondoen enbor zaharrak. Enbor hauek babestearekin batera, egitura berriak sortu ditugu hildako egurrarekin, horren menpeko bizia sustatzeko asmoz. Jatorrian San Martzial estaltzen zuen basoa —haritz, gaztainondo eta artez osatua— berreskuratzen hasita gaude. Bestalde, San Martzial ingurua da udalerrian dagoen ingurune karstiko nagusia eta leizea, kobak eta hobiak aurkitzen dira bertan.

Goiauzoan oraindik, hirigunearen hegoaldearen gainean, Surragako gurutzea dago. San Martin Agirreren omenez eraiki zuten, honen kanonizazioaren lehen mendeurrenean (1862-1962). Bergarako herriaren eta Deba haranaren ikuspegi ederrak izango ditugu hemendik.

## *EL BARRIO DE GOIAUZOA Y SAN MARTZIAL*

*El barrio de Goiauzoa, próximo al centro urbano, aún conserva paisaje y actividad rurales. Aquí se encuentra la ermita de San Martzial. Los primeros documentos donde se cita el "monte de San Marcial" y la ermita datan del siglo XVI, pero el uso ritual de este lugar será probablemente anterior. Espacio referencial para los bergareses, su carácter de lugar de fiesta, la ermita, la sima y la fuente sanadora crean un conjunto de elementos que lo hacen especial. La ermita era lugar de reunión de los vecinos, donde tratar los problemas de barrio y organizar el trabajo comunal. La vieja fuente, abandonada hacia 1960 y hoy oculta por la vegetación, tenía la fama de sanar las enfermedades de la piel, y atraía a mucha gente en busca de remedio.*

*San Martzial es actualmente una zona de esparcimiento, así como de conservación y restauración ambiental. Está equipada para el ocio (fuente, mesas, parque infantil) y para la interpretación del entorno (paneles sobre historia, costumbres, biodiversidad…). Todos los años, el pueblo de Bergara celebra aquí una multitudinaria romería.*

*En esta zona destacan los viejos troncos de antiguos castaños. Además de protegerlos, se han creado nuevas estructuras de madera muerta, para potenciar la vida asociada a la misma. Se viene recuperando también el bosque de robles, castaños y encinas que antaño ocupaba el lugar. Es la principal zona kárstica del municipio, encontrándose una sima, varias cuevas y sumideros.*

*Todavía en Goiauzoa y sobre la zona sur de la Bergara urbana se alza la cruz de Surraga, construida en honor a San Martín de Agirre en el primer centenario de su canonización (1862-1962). Desde aquí podemos contemplar magníficas vistas de la villa de Bergara y del valle del Deba.*



Arg: Imanol Mondragón

## BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea da izaki bizidunen aniztasuna; geneen, espezieen eta ekosistemen multzoa. Bilakaera-prozesu konplexu eta errepikaezin baten ondorioa da. Premiapremiazkoa da biodibertsitatearen aurkako erasoak gelditzea eta naturaren etorkizuna babestea; berez duen balioagatik (atseden eta kultur balioa), eta ematen dizkigun zerbitzuengatik. Zerbitzu horiek funtsezkoak dira lehiakortasunari, garapenari eta enpleguari begira, baina baita mundu osoan bizimodu-baldintzak hobetzeko ere. Horixe da, berez, Gerriko Berdearen helburuetariko bat.



Arg: Kiko Alvarez

Antzina, Bergara estaltzen zuen basoak honako zuhaitzak zituen:haritzak, arteak, gaztainondoak, lizarrak eta beste hostozabal batzuk. Gure hainbat behar ase ahal izateko, murriztu egin ditugu baso horiek; haien ordez, larreak sortu eta mantendu ditugu, edo kanpoko zuhaiztiak landatu ditugu, eta horrenbestez baso haien baitako biodibertsitatea galdu egin da. Ibilbide honetan zehar, jatorrizko basoaren atal batzuk aurkituko ditugu, hala nola Askatsuko hariztia, edo Errekalde gainean haritzek eta pagoek osatzen duten basotxoa. Nahiz eta eraldatuta egon, baso hauek balio izugarria dute, eta derrigor zaindu eta gorde behar ditugu. Bertan, espezie ugari aurkitzen ditugu, bai landareak (haritzak, gorostiak, basagereziondoak, elorriak...), bai animaliak (lepazuriak, katagorriak, muxarrak, orkatzak, gabiraiak, garrapoak, erregetxoak...). Larre- eta heskai-inguruek ere hainbat espezie babesten dute.

Prismatiko batzuen laguntzaz, ibilbide osoan zehar hegaztiak behatu eta goza dezakegu. Eta gida on bat badaukagu, bide bazterreko landare-espezie ugariak ere identifikatu ahal izango ditugu. Batzuk oso ohikoak dira; beste batzuk, berriz, oso bitxiak. Adibidez, Gogortxua (Viburnum tinus); Mediterraneoko izaera nabarmena duen espeziea izanik, hala ere, Artzamendin ugari daude.

## *BIODIVERSIDAD*

*La biodiversidad es la variedad de formas de vida, el conjunto de genes, especies y ecosistemas. Es la consecuencia de un proceso evolutivo complejo e irrepetible. Es urgente detener los ataques a la biodiversidad y proteger el futuro de la naturaleza, por su valor intrínseco (valor recreativo y cultural) y por los servicios que nos presta. Estos servicios son esenciales para la competitividad, el crecimiento y el empleo, así como para la mejora de las condiciones de vida en todo el mundo. Ese es precisamente uno de los objetivos del Cinturón Verde.*



Arg: Kiko Alvarez

*Bergara se encontraba antaño cubierta por un bosque compuesto de robles, encinas, castaños, fresnos y otras frondosas. Para satisfacer diversas necesidades, hemos ido reduciendo esos bosques, creando y manteniendo en su lugar pastizales o bien sustituyéndolos por plantaciones de árboles exóticos, con la consecuente pérdida de biodiversidad que albergaban. A lo largo del camino encontraremos retazos del bosque original, como el robledal de Askatsu y el bosquete de robles y hayas que se encuentra sobre Errekalde. Aunque transformados, estos bosques son muy valiosos y es prioritario conservarlos. En ellos encontramos muchas especies de plantas (robles, acebos, cerezos silvestres, espinos…), y animales (garduñas, ardillas, lirones, corzos, gavilanes, trepadores, reyezuelos…). También las zonas de prados y setos acogen a muchas especies.*

*Con unos prismáticos podremos disfrutar observando las aves durante todo el recorrido. Y una buena guía de campo nos permitirá identificar las numerosas especies vegetales que bordean el camino, muchas comunes y otras poco frecuentes, como el Durillo (Viburnum tinus), que aun siendo una especie de marcado carácter mediterráneo, mantiene en Artzamendi una importante población.*



Arg: Unai Asurmendi

## ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA

Ibilbidean zehar Bergarako Gune Historiko Monumentala ikusteko aukera daukagu. Dorretxe, jauregi, eliza, lorategi historiko eta antzinako kale eta plazen multzo bikaina da.

Gainera, bidean bertan edo gertu, interes handiko elementuak aurkituko ditugu. Bergarako arkitektura altxorren artean aipagarria den Agirreko garaia bidetik oso gertu daukaguna. XVI. mendearen lehen erdian eraiki zen eta Gipuzkoan gelditzen den benetako garai bakarra dugu hau.

Aurreraxeago, Gabiria dorrearekin egingo dugu topo eta handik ez oso urruti, baina bidea utzita, Ozaetakoa dago. Gabiria eta Ozaeta dorretxeak, biak hirigune historikoaren kanpoaldean, Behe Erdi Aroan elkarren aurka borrokan ibili ziren Bergarako bi familiarenak izan ziren. Gabiriakoa XV. mendearen amaieran eraiki zuten, aurretiko Erdi Aroko dorretxearen ordez, eta hurrengo mendeetan birmoldatu eta handitu. 2006/2007an zaharberritu zen. Armarri ikusgarria du.

Ibilbidearen amaieran Moiua dorrea ikusiko dugu. Hainbat mendetan egindakoa (XVI, XVII) eta XVIIIan berriztutakoa da, fatxada nagusia ikusgarria du.

## *PATRIMONIO HISTORICO ARTISTICO*

*El Casco Histórico-Monumental de Bergara se puede contemplar desde distintos puntos del recorrido. Constituye un magnífico conjunto de casas-torre, palacios, iglesias, jardines históricos y antiguas calles y plazas.*

*A lo largo del propio camino o en sus cercanías encontraremos además varios elementos de gran valor. El Hórrreo de Agirre, construido en la primera mitad del siglo XVI y que es uno de los tesoros arquitectónicos de Bergara, resulta ser es el único hórreo auténtico que queda en Gipuzkoa. El hórreo está situado muy cerca del recorrido.*

*Un poco más adelante encontramos la torre de Gabiria y no muy lejos, aunque apartándonos del camino, se sitúa la de Ozaeta. Ambas torres, situadas fuera del casco urbano histórico, pertenecieron a dos poderosas familias locales que lucharon entre sí durante la Baja Edad Media. La torre de Gabiria fue construida a finales del siglo XV en sustitución de la torre medieval anterior. Remodelada y ampliada en siglos posteriores, fue rehabilitada en 2006/2007. Cuenta con un gran escudo de armas.*

*Finalizando el recorrido encontraremos la torre de Moiua. Construida a lo largo de varios siglos (XVI, XVII) y reformada en el XVIII, muestra una fachada principal soberbia.*



Arg: Naiara Corcuera



Arg: Pedro Mari Arregi